

IKT sektorea euskal ekonomiak 2006an sortutako aberastasunaren %3,9 izan zen

IKT sektorearen indarra berrikuntzan eta I+Gn nabarmendu egiten da, sektore guztien batez bestekoaren gainetik

Eustaten datuen arabera, IKT sektorea (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia), - 2.175 enpresa, 24.277 pertsona okupatu- Euskal AEko BPGren %3,9 izan zen 2006an Enpresa eta langile horiek Erkidegoko guztirakoen %1,3 eta %2,5 dira.

Sektore honen negozio-zifra 4.931,3 milioi euro izan zen; sortutako aberastasuna, balio erantsiaren terminoetan, 2.146,8 milioi; 2006an %11 hazi zen aurreko urtearen aldean.

1. taula: IKT sektorearen magnitude nagusien bilakaera, eskualdeka eta jarduera sektoreen arabera, 2005-2006

	Enpresa kopurua			Landunen kopurua			Negozio kopurua (1)			Balio erantsia (1)		
	2005	2006	%	2005	2006	%	2005	2006	%	2005	2006	%
Sektoreak, guztira	164.086	169.456	3,3	965.358	987.058	2,2	-	-	-	51.110,3	54.903,0	7,4
IKT sektorea, guztira	2.001	2.175	8,7	23.406	24.277	3,7	4.443,1	4.931,3	11,0	1.927,4	2.146,9	11,4
Lurraldeka												
Araba	283	291	2,8	2.241	2.355	5,1	589,8	677,1	14,8	215,0	242,9	13,0
Bizkaia	1.200	1.299	8,3	12.983	13.701	5,5	2.438,5	2.682,7	10,0	1.110,8	1.234,3	11,1
Gipuzkoa	626	654	4,5	8.182	8.221	0,5	1.414,8	1.571,5	11,1	601,6	669,7	11,3
IKT SEKTOREA												
Industria	243	256	5,3	6.872	7.049	2,6	872,0	1.011,7	16,0	319,8	378,6	18,4
Zerbitzuak	1.758	1.919	9,2	16.534	17.228	4,2	3.571,1	3.919,6	9,8	1.607,6	1.768,3	10,0

(1) euroak milioikotar

Iturria: Eustat

IKT sektorean I+G egin eta berritzaileak diren enpresen ehunekoa gainerako sektoreenaren oso gainetik dago


IKT sektorean enpresen %8,1ek I+G egiten du; gainerako sektoreetan %0,7k; handia da aldea. Gainera, sektore honek, berak bakarrik, I+G egiten duten enpresen %14,8 du bere baitan.

IKT sektore barruko I+G gastua 73,5 milioi eurokoa izan zen 2006an; aurreko urtekoa baino %7,5 gehiago. Zifra hori enpresa guztien barruko I+G gastuaren %10,2 izan zen.

Sektore honetan, 2006an, 1.423 langile aritu ziren I+Gn, 2005ean baino %12,0 gehiago; enpresek, oro har %6ko langile-hazkundera izan zuten.

Enpleguan gehiago sakonduz, sektoreak 772 ikertzaile enplegatu zituen dedikazio osoko baliokidetzan, 2006an; 2005aren aldean %12,2ko hazkundera. 170 emakumeak izan ziren, lehengo urtean baino %17,4 gehiago.

1. grafikoa: I+G+i IKTko enpresetan, eta sektore guztietan. 2006 (%)



Iturria: Eustat

Berrikuntzan, I+Gn bezala, alde esanguratsuak daude sektoreen guztirakoaren eta IKTren artean. 2006an, IKT sektoreko establezimenduen %38,3k berrikuntzako jarduerak egin zituzten; sektoreen guztirakoan %16,6koa izan zen portzentajea. Enpresaren tamaina kontuan hartuta, 10 enplegatu eta gehiagoko enpresetan, lehenengo kasuan %48,1 izan zen ehunekoa eta sektoreen guztirakoan %32,7.

Berrikuntzako gastua IKT establezimenduetan 144,2 milioi euro izan zen; horietatik 129,3 10 enplegatu eta gehiagoko establezimenduetan.

Begiratzen badugu zer den berrikuntzako eta I+Gko gastua negozio zifraren gainean (barne berrikuntzako eta I+Gko intentsitate-ratioak), begi bistakoa da, baita ere, IKT sektorean baliabide gehiago joan zirela I+G+b-ra gainerako sektoreetan baino.

2. taula: IKT sektoreko barne Berrikuntzako eta I+Gko intentsitatea, eskualdeen, jarduera azpisektoreen eta enplegu-geruzen arabera. 2006 urtea.


	Guztira		10 enplegatu eta gehiago	
	Berrikuntzaren garrantzia	Barruko I+Garen garrantzia	Berrikuntzaren garrantzia	Barruko I+Garen garrantzia
Sektoreak, guztira	1,6	0,6	1,8	0,8
IKT sektorea, guztira	4,2	2,6	4,3	2,2
Eskualdeka				
Araba	3,4	1,7	4,9	2,6
Bizkaia	3,7	2,4	3,4	1,6
Gipuzkoa	5,7	3,2	5,9	3,3
IKT SEKTOREA				
Industria	6,0	4,2	6,0	4,1
Zerbitzuak	3,7	4,1	3,8	1,6

Iturria: Eustat

IKT teknologien erabilera orokorra da, baina merkataritza elektronikoa gutxi erabiltzen da baita sektore honetan ere.

IKT teknologien erabilera oso zabalduta dago sektore honetako enpresen artean, baina merkataritza elektronikoaren erabilera, gainerako sektoreetakoaren gainetik badago ere, ezarpen handirik gabe dirau. Baliabide horren bidez salmentak egindako establezimenduak %5,5 izan ziren, eta erosketak egindakoak %44,5. Enpresaren tamaina kontuan hartuta, 10 enplegatu eta gehiagoko enpresetan, salmentak %10,9k egin zituzten eta erosketak %42,9k.

2. grafikoa: IKT teknologiak erabiltzen dituzten 10 enplegatu baino gehiagoko enpresak Euskal AEn eta Espainian 2006. (%)



* Interneteko sarbidea baduten establezimenduen gaineko %.

Iturria: Eustat eta INE

Espainiako datuen aldean, 10 enplegatu eta gehiagoko enpreetan, Euskal AEko IKT sektorekoetan alde txikiak ikusten dira begiratutako adierazlearen arabera.

IKT sektoreak ondasunen kanpo merkataritzan duen eragina ez da oso esanguratsua: Esportazioak 186 milioi izan ziren, guztirakoa 16.647; inportazioak 430 milioi, guztirakoa 17.478 izan zirelarik.

IKT sektoreko enpresek inportatuetan telekomunikazio ekipoak nabarmentzen dira, guztien arteko %26. Esportazioen aldetik osagai elektronikoak nabarmentzen dira, %40.

Ohar metodologikoa:

IKT sektorea manufaktura eta zerbitzuetako sektoreek osatzen dute; beren jarduera nagusia Informazio eta Komunikazioaren Teknologien garapen, ekoizpen, merkaturatze eta erabilera intentsiboarekin lotuta dago.

IKT sektorea ELGEk bere egindako irizpideen arabera definitzen da. Informazioaren eta komunikazioaren industriarekin harremana duten jarduera ekonomikoak dira, bai industrialak, bai zerbitzuetakoak. Hona hemen, jarraian, sektore horretan sartzen diren jarduerak EJSN 93- 1. berrikustearen arabera: 3001, 3002, 3130, 3210, 3220, 3230, 3320, 3330, 5160, 5167, 6420, 7133, 7210, 7221, 7222, 7230, 7240, 7250, 7260.

Estatistika eragiketa hau Eustatek egindako ondoko inkestetatik eskuratutako informaziotik abiatuz egin da:

- Jarduera ekonomikoen gidazerrenda
- Kontu ekonomikoak
- Industriari buruzko estatistika
- Merkataritza eta konponketaren gaineko inkesta
- Lanbide eta Enpresa Zerbitzuen Inkesta
- Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko (I+G) jarduerari buruzko estatistika
- Teknologia-Berrikuntzaren Inkesta-TBI
- Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta: Enpresak
- Kanpo-merkataritzaren estatistika

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Jose Miguel Escalada

+Tlf:+34-945-01 75 96 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es